



Azpeitiko Udala

ALKATETZAK 2020KO MARTXOAREN 5EAN EMANDAKO EBAZPENA. HONEN BITARTEZ, AZPEITIKO UDALERRIAN ERREGIMEN BEREZIKO 28 ETXEBIZITZA TASATUAK ESLEITZEKO PROZEDURAN ONARTUAK ETA BAZTERTUAK IZAN DIRENEN ZERRENDAK ARGITARATZEN DIRA.

AURREKARIAK

Udal Batzarrak, 2019ko urriaren 1ean egindako bilkuran Hiri Antolamenduko Plan Orokorrari dagokion AU4 “Arana Ingurunea” gune urbanistikoa, 4.3 Esklabak-Iturzulo azpieremuan, -2. Fasea- eraikiko diren erregimen bereziko 28 etxebizitza tasatu eta euren gehigarriak esleitzeko oinarriak onartu zituen. Deialdiaren oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren 2019ko urriaren 7an.

Oinarrien laugarren atalean **2020ko martxoaren 2ko** data zehaztu zen, indarrean dagoen araudian aurreikusitako eskakizunak betetzen zituzten pertsonak edo bizikidetzak-unitateak, esleipen prozedura horretan parte-hartzea eskatzeko.

Eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren, eta oinarritzko baldintzak bete direla egiaztatu ondoren, onartuak eta baztertuak izan diren behin behineko zerrendak osatu dira kupotan banatuta (orokorra eta etxebizitza egokituak), eta, kasuan kasu, baztertzeko arrazoiak zein izan diren adierazita.

Zerrenda horiek Azpeitiko udaletxeko iragarki-taulan eta web-orrian www.azpeitia.eus erakutsiko dira, hamar egun baliodunetan, eta denbora honetan baztertuak izan direnek erreklamazioa jartzeko aukera izango dute, uste badute erabaki hori ez dela arrazoizkoa edo justifikatua izan. Erreklamazioa idatziz aurkeztu beharko dute Azpeitiko Udalaren sarrera erregistroan, adierazitako arrazoiak frogatzeko oinarritzat jotzen dituzten agiriakin batera.

Eta eskumenari dagokionez, Toki Administrazioaren Oinarriak arautzen dituen Legearen 21. artikulua dioena ikusita (apirilaren 2ko 7/1985 Legea), **NAGORE ALKORTA ELORZA** alkateak **ERABAKI DU**:

1.- Hiri Antolamenduaren Plan Orokorreko (HAPO) “Arana Ingurunea” HEN4 esparruko Esklabak-Iturzulo 4.3 azpieremuan 2. fasean eraikitzeak diren erregimen bereziko 28 etxebizitza tasatuak esleitzeko prozeduran onartuak eta baztertuak izan diren zerrendak argitaratzea; zerrenda horiek Ebazpen honen 1. eta 2. eranskinetan jasotzen dira hurrenez hurren.

*Espedientean jaso dira zerrenda horiek.

2.- Prozeduran onartuak eta baztertuak izan diren zerrendak hamar laneguneko epean jarriko dira jendaurrean erakusgai Azpeitiko Udalaren iragarki taulan eta web orrian www.azpeitia.eus. Baztertuak izan direnek denbora honetan erreklamazioa jartzeko aukera izango dute, uste badute erabaki hori ez dela arrazoizkoa edo justifikatua izan. Erreklamazioa idatziz aurkeztu beharko dute Azpeitiko Udalaren sarrera erregistroan, adierazitako arrazoiak frogatzeko oinarritzat jotzen dituzten

agiriekin batera.

Ebazpen hau tramitekoa da, eta ez du administrazio-bidea amaitzen.

Azpeitian, 2020ko martxoaren 5ean,
ALKATEA.



A handwritten signature in blue ink, written over the official stamp and the text "ALKATEA". The signature is stylized and appears to be "Nerea".